Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

2323

75/2011 DEKRETUA, apirilaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari «Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea AB-Centro de Transportes de Bizkaia, S.A.» sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematen diona.

Europako herrialdeen arteko merkataritza-harremanak areagotzearen eta garraio-sektoreak hartu duen garrantzia ekonomikoaren ondorioz, aipatu bezalako zentroak sortu dira Europan; zentro horiek, hain justu ere, garraioko eskariaren eta eskaintzaren arteko kontaktua erraztu eta koordinazio intermodala ahalbidetzen dute, eta enpresen koordinazioa, kudeaketa eta antolaketa hobetzen.

«Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea AB-Centro de transportes de Bizkaia, S.A.» sozietatea abenduaren 20ko 242/1982 Dekretuaren bitartez eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sozietate Publiko gisa. Abenduaren 3ko 375/1985 Dekretuaz galdu zuen izaera hori. Sozietate horren xede soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan Garraio-Zentro Integratuak eta ibilgailu astunentzako aparkalekuak sustatu, prestatu eta ustiatzea da.

Erabakitako gehikuntzaren aurreko kapital soziala berrogeita zazpi milioi seiehun eta berrogeita bat mila bostehun eta hogeita hemeretzi euro eta hirurogeita sei zentimokoa da (47.641.539,66). Kapital horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bederatzi milioi bostehun eta zortzi mila bederatziehun eta hirurogeita hemeretzi euro eta hogeita hamasei zentimoko (9.508.979,36) partaidetza eta harpidetza du, hau da, kapitalaren % 19,96.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Erkidegoan kokaturiko garraio-zentro integratuak sustatzeko duen politikari jarraiki, kontuan hartu da «Bizkaiko Garraio Gunea AB-Centro de Transportes de Bizkaia, S.A.» (Aparkabisa) sozietateak bere kapital soziala gehitzeko egindako aurreikuspen-txostena. Hortaz, sozietatearen kapitala milioi bat zazpiehun eta berrogeita bederatzi mila seiehun eta hirurogeita zazpi eurotan eta berrogeita hemeretzi zentimotan (1.749.667,59) gehituko da; gehikuntza hori bost mila eta berrehun (5.200) akziotan ordezkatuta egon-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

2323

DECRETO 75/2011, de 12 de abril, sobre autorización de participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la ampliación de capital de la sociedad «Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea AB-Centro de Transportes de Bizkaia, S.A.».

El incremento de las relaciones comerciales entre los países comunitarios y la importancia económica del sector del transporte han motivado la creación en Europa de estos centros que facilitan el contacto entre la oferta y la demanda de transporte, a la vez que posibilitan la coordinación intermodal, mejorando la organización, gestión y coordinación de las empresas.

La Sociedad «Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea AB-Centro de transportes de Bizkaia, S.A.» se constituyó por Decreto 242/1982, de 20 de diciembre, como Sociedad Pública de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, habiendo perdido tal condición por Decreto 375/1985, de 3 de diciembre. Constituye su objeto social la realización de aquellos fines, dirigidos a la promoción, preparación y explotación de Centrales Integrales de Mercancías y aparcamiento para vehículos pesados en el Territorio Histórico de Bizkaia.

El capital social anterior a la ampliación acordada se fija en cuarenta y siete millones seiscientos cuarenta y un mil quinientos treinta y nueve euros y sesenta y seis céntimos (47.641.539,66) euro, estando participado y suscrito por la administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en un importe de nueve millones quinientos ocho mil novecientos setenta y nueve euros y treinta y seis céntimos (9.508.979,36) euro, que suponen un porcentaje del 19,96% de aquél.

Siguiendo con la política de la administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi de potenciar los centros integrados del transporte ubicados en la Comunidad se ha teniendo en cuenta el informe de previsión de la Sociedad «Bizkaiko Garraio Gunea AB-Centro de Transportes de Bizkaia, S.A.» (Aparkabisa) de ampliar su capital social en un millón setecientos cuarenta y nueve mil seiscientos sesenta y siete euros y cincuenta y nueve céntimos (1.749.667,59), representadas por tres mil seiscientas treinta y nueve (3.639) acciones nominativas de cuatrocientas ochen-

go dira, eta horietariko bakoitzak laurehun eta laurogei euro eta laurogeita bat zentimoko (480,81) balio izendatua izango du.

Kapitala gehikuntzari buruzko aurreikuspen txostena,Sozietateko zuzendari nagusiak egindakoa, aztertu ostean, bidezkotzat jo da, helburu horri begira, kapital horren gehikuntzan parte hartzea. Ondorioz, EAEko Administrazioak sozietatearen kapitalean % 19,96ko partaidetza izango du, betiere Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 110. artikuluan eta gainerako xedapen bateragarrietan adierazitako prozeduraren arabera.

Horiek hala, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko apirilaren 12an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematea aurreikusitako kapitalgehikuntzan parte hartzeko. Jaurlaritzaren Kontseiluak baimena eman ondoren, «Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea AB-Centro de transportes de Bizkaia, S.A.» sozietatearen Akziodunen Ohiko Batzar Nagusiak gehikuntza onartu ahal izango du. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hirurehun eta berrogeita hamar mila eta hogeita bederatzi euro eta hirurogeita zortzi zentimoko (350.029,68) ekarpena eginez gauzatuko da gehikuntza eta, ondorioz, sozietatean % 19,96ko partaidetza izango du aurrerantzean.

2. artikulua.– Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazioko zuzendariari edo parte hartzeko kide-eskubideak dituenari baimena ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean, akzioak harpidetu eta estaltzeko beharrezkoak diren ordainketak eta ekarpenak egiteko, kapitalgehikuntzak sozietatearen estatutuetan eragiten duen aldaketa onartzeko, bai eta, orokorrean, aurreko artikuluan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren gainontzeko jarduketetan aritzeko ere.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 12an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

ta euros y ochenta y un céntimos (480,81) de valor nominal cada una de ellas.

Una vez analizado el informe de previsión para la ampliación de capital elaborado por el Director General de la mencionada sociedad, se estima adecuado a tal fin acudir a la citada ampliación de capital, siendo posteriormente el porcentaje de participación de la Administración de Euskadi en el capital social del 19,96%, todo ello conforme al procedimiento señalado en el artículo 110 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, y demás disposiciones concordantes.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Economía y Hacienda y de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 12 de abril de 2011,

DISPONGO:

Artículo 1.– Autorizar la participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la ampliación de capital prevista con el fin de que, una vez autorizada por el Consejo de Gobierno se pueda acordar por la Junta General de Accionistas de la Sociedad «Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea AB- Centro de transportes de Bizkaia, S.A.» la referida ampliación, con una aportación por parte de aquélla de trescientos cincuenta mil veintinueve euros y sesenta y ocho céntimos (350.029,68), siendo con ello el nuevo porcentaje de la participación de la Administración Autónoma del País Vasco en el capital de dicha Sociedad, el 19,96%.

Artículo 2.– Se autoriza indistintamente al Director de Patrimonio y Contratación del Departamento de Economía y Hacienda o a quien corresponde el ejercicio de los derechos de socio para concurrir, en nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a materializar los desembolsos y aportaciones necesarias para la suscripción y cobertura del importe de las acciones correspondientes, así como para prestar su conformidad a la correspondiente modificación de los estatutos sociales motivada por la ampliación de capital, y, en general, para el ejercicio de cuantas actuaciones sean necesarias para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo anterior.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de abril de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.